

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko abenduaren 7a. VIII. urtea. 2.320. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Eizmendiko zirkuitua lokaztuta zegoen, eta Egoitz Murgoitio bikain egokitu zen bertara. A. IMAZ

Egoitz Murgoitio nagusitu da Asteasun

XIII. Nazioarteko Ziklo Kros proban erakustaldia eman du Abadiñoako gazteak; Aitor Hernandez sailkatu da bigarren postuan, irabazlearengandik minutu bat eta 55 segundora **3**

Turisten kopurua bikoiztu egin da aurreko asteburuan, iazkoarekin alderatuz

Tolosako Txuleta Festa da zubian arrakasta gehien izaten ari dena; hori baliatuz, hainbat merkatarik dendak ireki zituzten atzo **4-5**



Zenbait turista, atzo, Tolosako kaleetan. M. UGARTEMENDIA

Udalaren gardentasuna eta partaidetza «asmo hutsean» geratzen dira, EAJren ustez

Aurreko legealdian eginikoa «saihestu eta lurperatu» nahi duela diote Tolosako zinegotzi jeltzaleek **2**

90 kidek bizirik mantentzen dute Tolosako Santa Maria parroko musika kapera

Sortzez Garbia eguna dela eta, gaur eta biharko meza ospakizunetan kontzertuak emango dituzte **6**



FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

Kondeko aldepa, 5
www.funerariavascongada.com



Gertu...

TOLOSAKO
HILETA ZERBITZUAK
BETLATOKI BULABEA

24 H..

943 670 040

Irudia Tolosa



AGUR ESATEAREN SENTIMENDUAZ

Titirijai jaialdiak agur esanagatik ere, antzezenek ez dute etenik Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan. Atzokoan, gainera, emanaldi berezia hartu zuen zentroak, izan ere, Mimaia taldearen lan berria estreinatu zen bertan. *Adios, Bienvenida* antzezenaren bitartez, agur esateak sortzen duen tristuraz hitz egiten dute egileek. Lan hau sortzeko, Topic-en egin duten egonaldia baliatu dute bartzelonarrek. I.T.

Irudia Tolosa



JAI EGUNEAN, HERRI ESKOLAK

Abenduaren 6a, Espainiako Konstituzioaren eguna izaki, ofizialki jai izan arren, Las-korain ikastolan herri eskolak izan zituzten atzokoan. Ikasle Abertzaleek jai egun horrekin bat egiten ez dutela erakutsi nahi izan zuten beste urte batez. Hala, asanbladak izan zituzten, eta Txileko ikasleen borroka ezagutzeko parada izan zuten. 60 lagun baino gehiago elkartu ziren aldarrikapen ekintza horietan. I.T.

→ Laburrak

Frontenis Txapelketako finalak, gaur arratsaldean

BERROBI XX. Ion Ander Izagurre Frontenis Txapelketa azken puntura iritsi da. Atzo jokatu zituzten hirugarren eta laugarren postuetarako partidak, eta gaur finalen txanda izango da. 16:00etatik aurrera ondorengok jokatu dute: binaka Romero-Lobo eta Niko-Iker ariko dira; nesketan, Leire-Oihane eta Mireia-Arantzazu neurtuko dira, eta banaka, Romero Enekoren aurka. Ohiko sariez gain, hainbat opari zozketatuko dituzte antolatzaileek finalera agertzen diren parte hartzaileen artean.

Perurenaren marka ahalegina, atzeratuta

LEITZA Inaxio Perurena harri-jasotzaile leitzarrak 300 kiloko harriarekin marka ezartzeko ahalegina egin asmo zuen bihar, Leitzan, baina azkenean proba hori bertan behera geratu da. Antolatzaileek jakinarazi diete herri kirol federazioei mementoz atzeratu egiten dela ahalegin hori.

Talo tailerra egingo dute gaur, gaztetxean

LEITZA Atekabeltz gaztetxeak antolatuta, talo tailerra egingo dute gaur, gaztetxean bertan. 17:30ean hasiko dira taloak egiten, eta bertaratu nahi duen ororontzat irekia izango da.

Udalak sustatzen duen gardentasun eta partaidetza zalantzan jarri du EAJ-PNVk

Partaidetza arautu egin beharko litzakeela dio, eta batzordeen bilerak «asko murriztu» direla salatu du

Erredakzioa Tolosa

Tolosako EAJ-PNVko zinegotziek zalantzan jarri dute Bildu koalizioak eta Aralar alderdiak osaturiko udal gobernuak sustatzen duen partaidetza eta gardentasun politika. Euren ustetan, «asmo hutsean» geratzen da, eta «ahalegin handiagoa» egin beharko lukete horiek bultzatzeko. EAJ alderdiak ohar bidez adie-

razi du «saihestu eta lurperatu» egin nahi dutela aurreko legealdian eginikoa, eta Tolosa 2015 aipatzen dute adibide moduan. «Aurreko korporazioak proiektu hori jarri zuen martxan, gizarte eragileen ekarpenak jasotzeko helburuz; 300 gizarte eragilek hartu zuten parte eta 200 ekarpen inguru jaso ziren; egindako lan hori positiboa litzateke, alderdikariak aparte utzita, garatu litezkeen proiektuak bideratuko balira», azaldu dute. EAJren ustez, baina, «Tolosa 2015 EAJk sortutako marka denez, begibistatik kentzea da Bilduren helburua».

Bestalde, jeltzaleen ustetan, partaidetza arautu egin beharko litzateke; «batzordeetan, kolekti-

bo ezberdinetako eragileei lekua aitortu zaie; hau guztia inolako arautegirik gabe ari dira egiten, jendea gonbidatuz».

Batzordeen bilerak

Batzordeen bileren inguruan, hauek «asko murriztu» direla adierazi du EAJ alderdiak. «Azken ia sei hilabetetan egin diren batzordeen bilerak ez dira erdira iristen aurreko urteetan garai berean egindakoekin alderatzen badugu. Gainera, badira bilera bat baino gehiago egin ez duten batzordeak, eta badira oraindik bilerarik egin ez duten enpresa publikoak, Tolosa Gasa eta Tolosa Lotzen, kasu».

Bestalde, udalaren gardentasuna «zalantzan» jarri dute, «batzordeen bileretan ezer gutxi erabaki daitekeelako, erabaki beharrekoa jadanik erabakita egoten delako». Halaber, «kaletik edo kafe makinatik» izaten dutela erabaki batzuen berri salatu dute: «Zenbait langileei kontratuak ez berritzea bezalako gaiak ez dira eztabaidatzen dagozkien departamentuen barnean».

EAJk partaidetza eta gardentasunaren inguruan, «ahalegin handiagoa» eskatzen du, eta «aurreko korporazioak sustatutako partaidetza mailara iristea» espere dutela gehitzen du.



Tolosako Udala

IRAGARKIA

"APATTA" TOLOSALDEKO INDUSTRIALDEKO I PARTZELAKO HIRI ORDENAZIOKO PLAN BEREZIAREN BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Udalbatzak, 2011ko urriaren 4an egin zuen Osoko Bilkuran, besteak beste, honako Erabakia hartu zuen:

Lehen. Behin betiko onspena ematea "Apatta" Tolosaldeko Industrialdeko I partzelako Hiri Ordenazioko Plan Bereziari.

Bigarren. Behin betiko onarpenera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Hirugarren. Behin betiko onspena Leaburuko Udalari jakinaraztea, eta aldi berean eskatzea beraiek ere Plan Berezia onartzeko prozedurari hasiera eman diezaiotela.

Hirigintza Planeamenduko Administrazio Erregistroan 2011ko azaroaren 24an sartu da.

Erabakia behin betikoa da, eta bide administratiboari amaiera ematen dio, Erabakiaren kontra Administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita bi hilabeteko epean.

Birjarpen errekurtsioa (nahibadakoa) Plenoan, lehen aipatutako errekurtsioa jarri aurretik, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hilabete baten barruan.

Tolosan, 2011ko abenduaren 2an
ALKATEA.



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Aitor Hernandez, Egoitz Murgoitio eta Jose Antonio Hermida podiumean, Pili Legarra Asteasuko alkatea ezkerrean dutela. A. IMAZ

Egoitz Murgoitioek Sven Nysen mozorroa jantzita irabazi du

Asteasuko XIII. Nazioarteko Ziklo Kros probako antolatzaileak, Aitzondo elkartekoak, gustura gelditu dira

Egoitz Murgoitioek eskerrak eman dizkie antolatzaileei eta ikusleei, «esfortzuagatik»

Asier Imaz Asteasu

Egoitz Murgoitioek izugarriko erakustaldia eman zuen atzo Eizmendi auzoan, Asteasuko XIII. Nazioarteko Ziklo Kros proban. Sven Nys handiak leku berean egin ohi izan zuen bezala, hasieratik utzi zituen aurkari guztiak atzean abadiñarrak. Bigarren itzulirako, bigarrenari minutu bateko aldea ateratzen zion. Amaiera aldean, erritmoa jaistea erabaki zuen Murgoitioek, eta Aitor Hernandezi ia bi minutuko aldea ateratzen zion helmugan.

Asteasuko proba 10:00etan hasi zen, kadeteen lehiarekin. Ikusleak pixkana-pixkana hasi ziren gerturatu Eizmendi ingurura, eta denek krisia edo nazioarteko izar handien hutsunea zuten buruan. Ibilbideak, ordea, lokatza erakusten zuen, eta hori ziklo kroseean ikuskizuna da. Goizeko euri tantak eguzki zertzelada bilakatu ziren eguerdian, elite mailako proba jokatzeko ari zirenean. Une horretan, ibilbidearekin erabat bat eginda, txirrindulari bakarra zebilela zirudien: Egoitz Murgoitio. Aurreko urteetako



Martiola eta Odriozola podiumean; Gonzalezek ondoren jaso zuen saria. A.I.

atzeritarren erakustaldien pareko lasterketa egiten ari zen 28 urteko euskalduna: bihurguneetan segururik joaz, eta zuzen guneetan izugarriko indarra erakutsiaz. Ikusgarria benetan bihurtzeko atera eta lehen pedalkadetan erakusten zuen indarra.

Egoitz Murgoitioek ikastaroa eskaini zuen Asteasun, eta gaia ziklo krosaz nola gozatu zen.

Lasterka amaieran esker onetako hitza izan zituen abadiñoarrak: «Lasterketa oso ona da Asteasuko, eta zirkuitua bikaina da. Aurrekontuekin lasterketa

↓ Saikapenak

ELITE MUTILAK

1. Egoitz Murgoitio
2. Aitor Hernandez +1:55
3. Jose Antonio Hermida +2:18
4. Javier Ruiz de Larrinaga +2:55

23 URTE AZPIKOAK

1. Jonathan Lastras
2. Pablo Rodriguez
3. Alberto Sainz

ELITE NESKAK

1. Olatz Odriozola
2. Lucia Gonzalez
3. Amaia Martiola

JUNIOR NESKAK

1. Eider Merino
2. Lierni Lekuona
3. Ruth Telleria

JUNIOR MUTILAK

1. Jaime Campo
2. Jose Manuel Ribera
3. Xabier Goikoetxea

KADETE NESKAK

1. Arantza Villa
2. Izaro Iraolagoitia
3. Yaiza Agirre

KADETE MUTILAK

1. Gotzon Martin
2. Patxi Aldanondo
3. Daniel Maiora

MASTERRAK

30 urtetik gora

1. David Busto

40 urtetik gora

1. Ruiz de Arkate

50 urtetik gora

1. Jose Antonio Mazaira.

guztiak arazoak izaten ari dira, baina hemen antolakuntzak kalitatea mantentzea lortu du, esfortzu handi batekin; ikusleei eta antolatzaileei eskerrak eman behar zaizkiela uste dut». Berak egindako lanarekin, «gustura» agertu zen txapelduna: «Lokatzairekin karrera onak egin izan ohi ditut, eta pixka bat harrituta ere banago ematen ari naizen mailarekin».

Antolatzaileak, Aitzondo Txirrindulari Elkarteko kideak, gustura zeuden atzoko ikuskizunarekin. Hala eta guztiz ere, etorkizunean lasterketak zein itxura hartuko duen ez dakite ziur.

Zatoz **hitza**ren egoitzara gure arropa berriak probatzera

Helduentzako
Jertsea: 29,5 €



Kolorea: beltza
Gizon eta emakumeen modelook
Neuriak:
• Gizonak: S-M-L-XL-XXL
• Emakumeak: S-M-L-XL

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza**

Araba Etorbidea, 5 behe (Tolosa) • Tel: 943-65 56 95

Bertako informazioari,
bertako produktuak

Egin HITZAren harpidedun

abenduaren 31 baino lehen, eta jaso

MAHALA ekoizlearen produktu sorta hau **OPARI**

hitza info

Harremanetarako:

902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

Pasa den asteburuan bisitarien kopurua «bikoiztu» egin zen lehengo urtearekin alderatuta Tolosaldea Tour turismo bulegokoen arabera; hala ere, datorren asteburuan «bisitari gehiago etortzea» espero dute.

Tolosaldea, turisten topaleku

Maier Ugartemendia

Tolosaldea turismo gune nabaritzen ari da, eta horren erakusle urteetik urtera turisten kopurua gora egitea. Tolosaldea Tour turismo bulegoan, esate baterako, aurreko urtearekin alderatuz pasa den asteburuan «bisitari bikoiztu» egin ziren. Bisitari gehiengoa eguzki-ontziak eta bizkaitarrak izan ziren turismo bulegoaren arabera. Horietako asko egun pasa etorri zirenak.

Aurtengo zubia oso luzea da, eta jendearen gehiengoak aste osoan jai egin beharrenean, «jategun solteko» hartu dituzte Tolosaldea Tour-ekoen arabera. Hala ere, turismo bulegoek «aurrera urtebetako dituzak behar izango» espero dute, nahiz eta badiotzen zenbait landaketan «erreserbak nahiko mantsu» doazela.



Atzoko Txuleta Festako bazkarian 200 lagun inguru izan ziren; datozen egunetan ere jende asko espero dute.

Irudia Tolosa



JAI EGUNEAN KOMERTZIOAK ZABALIK

Tolosa&Co merkatarien elkarteak, jada ekimendia Gabonetako kanpainari, eta urtarilaren 10a bitarte luzatuko da. Atzo Txuleta Festako zela eta, guztira 50-55 bat komertzio atak zabalik izan

zizuten, eta badirudi jendeak eskuz zabalik hartu zuela proposamena; izan ere, dendetan etengabe ikusten zen bertako nahiz kanpoko jendea ardurariena. www.usarema.net

ri eta Usabal jatezestean eta Bidaniako Olazal hoteleko jatekixean ere hiliarren 8ra arte, hain da, hiliar arte. Txuleta Festako menu berria bazkaltze edo afaldu ahal izango da, 45 eurotan.

Txuleta Festan leku ezberdinetako jende izango den arren, aipagarria da osteguneko bazkarian izango diren 200 pertsona ingururik ez direnak gaitziazko izango direla. Bertatik etortzako bi autobusek Tolosan etengo dute gekilialdia, nahiz eta gero Donostira joango diren bi egitea.

Kataluniarrek jaun eta jabe Kataluniarrek Euskal Herrietan maiteminduta daudela esan izan da maiz, eta hori horrela dela pentsa daiteke atzo Tolosan zehabitan kataluniar gutxiak kontatzen harturero.

Noemi Bosch, Imma Marselles eta Eva Torres leizarrak Donostian bizirik diren baina era berean kataluniarrek diren Esther Trabalon eta Sergio Beltran lagunak bisitarien etorri dira hirur egunetarako. Donostian lo egiten duten arren, atzo Tolosara etorri ziren egun pasa, eta bertan Gorrotzategi museo bisitatu zuten, bestekak beste. Erzen Euskal Herria etortzen ziren lehen aldai, baina bai Tolosara etortzen zirena, eta inguru honetatik gehiago gustatzen zaienari buruz galdetuta «baberak eta pintxoak» direla onartzen zuten.

Madrilarrak ere topatu zituzkeen Tolosako kaleetan. Arantxa Marcos eta Iban Merino lurubatzen etorri ziren Bidaniara, bertan zazpi gau igaroko dituzte, eta egun horietan zehar Gasteiz edota Donostia bisitatzeko aprobetxatuko dute. Atzo Tolosan izan ziren, Txuleta Festan bazkalzako eta herriko txoko ezberdinak espezialitate senez zuten. Tolosetik gehien gustatu zitzaizkeneri buruz galdetuta, berriz, Aida Zaharra zela esan zuten.



Argiñena landetxea Berastegiko Eildu auzoaren erdigunean kokatuta dago; 2009an zabaldu zutenetik etengabe baserria egokitzten eta proiektu berriak egiten ari dira. www.usarema.net

Arantxa Ormaetxea • Argiñena landetxeko arduraduna

«Hiru edo lau egunetako zubietan mugitzen da jende gehien»

M. Ugartemendia Eida

Argiñena landetxea Berastegiko Eildu auzoan kokatuta dago. Bertan biz da Arantxa Ormaetxea (Aldanain, 1968), landetxearen arduraduna, bere familiarekin. Krisi gara honetan proiektu berri batetan sartzeko auzurria izan zuten, eta «gustura» daude. Landetxetik beste turismo mota bat eskaintzen dute, gertutasuna eta goxotasuna ezagutzari berezgarri bezala dituen. Bisitariak bertako jasaitasuna eta paisaia benetan eskertzen dituzte.

Noiz ireki zenuen landetxea? 2008ko abuztuaren zabaldu geroan. Baserria herentzian jaso zuen senarrak. Ekonomia-ko hona etorri ginen bitartean. Lehenengo bitarteko paita beti bertan geroan, baina baserria oso handia da eta horrelako espazio bat nola aprobetxatu pentsatzen aritu ginen. Azkenean, proiektu honetara aurrera egiten erabaki geroan. **Zer eskaintzen duzue?** Bost logela ditugu, eta gosaria ere eskaintzen dugu. Gainera, eskal pottokak ditugu. Sagardo ere egiten dugu lehergo moduan, eta prozesu eragutu mahi duenak eta parte hartu nahi duenak auzera izaten da. Barazta ezagutzen ez dutenek ere bertan aritzeko aukera izaten dute. Hirutarreko itxura sioa egiten diete baraztako tomatek eta euren hartzeak. Bestalde, kilometro gutxitan ere gauza asko dande ikuzteko kostaidea. Leizarran, mendia.

Zer moduzko garapena izan du landetxek? Garapen ona ari da izaten, nahiko mantsa, baina, ino gustura nago. **Nongo jende etortzen da gehien?** Gehienbat kataluniarrek etortzen dira, Girona, Bartzelona aldetik. Kataluniarrei Euskal Herria berdeztasuna eta freskotasuna asko gustatzen zaie. Eta ez dute alferkeriarik, hiru edo lau egun jai dituztean asko mugitzen dira. Lehengo urtean Madriletik ere jende asko etorri zen. Euskaldunak gutxiago etortzen dira. Tartera familia bizkaita.

ren bat etortzen da, baina gutxiago. **Zer jende mota etortzen da?** Denetarik pikta bat, baina batez ere familiarak. Gerozko bario gehiago helduak etortzen dira; seme-alabak hazita dituzten seme-emakume edo seme-alaba txikiak dituztenak etortzen dira gehienbat. **Noiz izaten duzue jende gehien?** Abuztua eta aste santuak segetruen bat izaten dira. Horrez gain, zubietan, hiru edo lau egun jarraituz jai izaten den egunetan mugitzen da jende gehien.



Arantxa Ormaetxea, landetxearen sareraria. www.usarema.net

Krisi gara honetan, zer moduzko urte izan da aurtengoa? Egia da motela doala. Zubi horietan eskerrik gaitzela, baina egia da lasa dagoela. Guk eskertzen ditugu zubi horiek. Egun hauean etortzen den jendearekin aurrera begira ere animo pikta bat ematen dugu.

Egun hauetarako bisitariak espero al dituzte? Bai, aurreroko asteburuan ez geroan jenderik izan, baina ostegunetik aurrera Valentziako eta Gironako jendea espero dugu. Hiru gehi jada ospatuta dugu. **Aurrera begira zer proiektu egun nahi dituzte?** Gu hasi berri gara, eta espero dute gehiagora joatea. Behin proiektu hori behar sartuta, gauza ezberdinak egiteko asmoa dugu. Lehen ikusitako zen lekuan, esate baterako, sukaldia, esporgela eta spa jartzeko asmoa dugu. Honekin, asteburu normaletarako gauza gehiago eskaintzeko aukera izango dugu. Publizitatea ere landu beharreko puntu bat da, beharrezkoa ikusten dugu. **Gospe behintzat ez zaituzte fida.** Ni baikorra naiz, eta gogotsu nago. Badaude jenderik etortzen ez den asteburuak, eta orduan kezkatzen hasten zara. Baina, espero dugu aurrera begira jende mugitzen hastas.

TK

sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **20 sarrera pare** ditu

Olentzero eta Iratxoaren Jauntxo filma

Sarrerak, filma eskainiko den edozein toki eta ordutegitan erabili ahal izango dira

sanak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zerbakira

TRONTO hitza

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRAREN GATIK

P-5008

TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTIZESKONARDA
San Esteban auzoa, 14A • 20400 TOLOSA • Tel: 943 650 337 / Fax: 943 652 938 | info@tolosa.red Peugeot.com

Santa Maria parrokiako musika kaperak duela lau mende inguru sortu zen, eta entzute handiko musikarien eskola izan da. Gaur egun, musika afizio duten 90 kidek musikatzeko dituzte parrokiako mezak.

Mendeetako doinuen lekuko

Itzea Urkizu

Tolosako Santa Maria parrokiako musika kaperaren inguruko berriak zaharrena 1540. urtekoa da; Julian de Luzuriagaren izena agertzen da, organista bezala. Hala ere, taldearen funtzionamenduari buruzko dokumenturik zaharrena 1618koa da. Gaur egun, oraindik ere, Santa Maria musika kaperak lanean jarraitzen du, eta Euskal Herriko musika erakunde zaharrenetarikoa da.

Urteetan zehar iraun izana da, besteak beste, kaperak musikaren ezaugarriak aipagarrienera. XVII. mendean sortu zenez geroztik, Santa Maria parrokiako liturgian aritzen da hainbat musikariren lanak interpretatzen. Nabarmenezkoa da, bestalde, taldeko kide kopurua: 90 lagun biltzen dira gantzira, abeslari, orkestra, organojolea eta zuzendariaren artean.

Urtean zeharreko emanaldi batzuk beti errepikatzen direnak izaten dira; gaur eta bihar, esaterako, Sortzez Garbiaren eguna dela eta ospatzen diren mezetan ariko dira. Horrez gain, Santa Zuzilia egunean, Eguberrietan, Corpus egunean, San Joan egunean, Izaskungo ermitako mezetan, eta hainbat omenaldi eta antzekoetan ere kontzertuak eskaintzen dituzte.

Azken urteotan, gainera, Tolosatik kanpo ere hainbat emanaldi eskaini ditu kaperak musikak, parrokiako kontzertuetz gain. 2007. urtean, esaterako, Felipe Gorriti musikariari Tafallan egin zioten omenaldi batean parte hartu zuten, bertako musikariek batera. 2008an, berriz, Eduardo Moco-roaren *Misa Pastoralen* mendeurrenaren harira, Arantzazun eta Donibane Lohitzunen kontzer-



Gaur egun, 90 kidek osatzen dute Santa Maria parrokiako musika kaperak. HITZA

tzuak eskaini zituzten. Gipuzkoaren fundatzearen mendeurren ere ospatu zuten, eta Santa Maria parrokiako musika kaperak Getarian kontzertua eskaini zuten, Moco-roa eta Gorritiren obrak eskainiz. Azkenik, iaz, Bergaran, Getarian, Gabirian nahiz Madri- len izan zituzten emanaldiak. Garai berriekin batera, beraz, esparru eta inguru berriei atea zabaldiz dio Santa Mariako musika kaperak.

Musikazaleen txokoa

Musika afizio dute, gaur egungo musika kaperako kideek, eta Tolosako musika ondarea zaindu eta ezagutaraztea da euren helbururik behinena.

XIX. mendera arte, ordea, kaperako zuzendariaren nahiz organo jolearen postua, entzute handikoa ziren. Santa Mariako kaperako musikaria izatea ere, prestigio handikoa zen. Horren erakusle da, taldeko posturen bat betetzeko deialdia luzatzen zenean, kanpoko herrietatik Tolosara etor-

tzen zen musikari kopurua; 1855. urtean, tenore posturako zortzi hautagai aurkeztu ziren, eta hauetariko batzuk, Guadalajaraketik etorri ziren.

Hala ere, XVIII. mende amaieran jaso zuten, Santa Mariako musika kaperak, bultzada nabarmena, Felix Maria Samaniego alkate zela. Bultzada honek ekarri zuten, XIX. mende hasieran, Tolosako musika kaperako zuzendaritza inguruko garrantzitsuenetarikoa izatea; garai hartako musikaririk entzutetsuenek egin zituzten kaperan sartzeko probak. Ezagunetarikoa, alde batetik, Candido Aguayo izan zen, baina bera ordezkatu zuen Felipe Gorritik eman zion musika kaperari benetako izena musikaren munduan. 1867. urtetik 1897ra bitarte aritu zen musika kaperan, eta hari zor zaio Stolz Freres organoa erosi izana; gaur egun, inguruko hamar organo onenetarikoen artean dago.

Organoaz haratago, ordea, musikariren eskola sortu zuten, eta ho-

rren bidez lortu zuten, ordura arte musika kaperan ez zeuden instrumentuak, bertan sartzea: biolinak, biolak, biolontxeloak, kontrabaxuak, flautak eta tronpetak.

Bere ekarpenaren barruan, 300 obra baino gehiago ere sortu zituen; aipatzekoa da, *Agur Jesusen Ama* ezagunarekin, nazioarteko hainbat sari irabazi zituela Parisen, 1881 eta 1882 urteetan.

Felipe Gorritik, ordea, izan zuten oinordekorik, berak hasitako lanarekin jarraitzeko, eta bide horretan, Eduardo Moco-roa eta haren semea, Inazio Moco-roa, aipatu behar dira.

Sortzez Garbiaren mezak

Sortzez Garbiaren eguna dela eta, Santa Maria parrokiako musika kaperak bi kontzertu eskainiko ditu, urteroko ohiturari eutsiz.

Gaur iluntzean, 19:00etan, meza izango da, eta honako obrak eskainiko dituzte bertan: Madinaren *Aita Gurea*, Felipe Gorritiren *Motetes al Santísimo* eta egile beraren *Salve*. Organoan, Loreto

Fernandezariko da, eta zuzendari lanetan, berriz, Iñaki Aierbe. Bakarlarriak, Axun Gaztañaga, Jexux Mari Jauregi eta Joxeja Garcia izango dira.

Bihar, 12:00etan izango da meza, eta erreperitorio zabalagoa eskainiko dute. Kasu honetan, Luis Orduñak zuzenduko du musika kaperak, eta organoan Loreto Fernandez ariko da. Bakarlarriak, berriz, Javier Yarla eta Jexux Mari Jauregi izango dira.

Meza hasi baino lehen, Loreto Fernandez organojoleak Johann Sebastian Bach-en zenbait lan joko ditu. Behin ospakizuna hasita, Eduardo Moco-roaren *Misa en honor a San Juan Bautista* obra eskainiko dute, tolosarren artean *Inmakuladaren meza* izenez ezagunagoa dena.

Eskaintzaren unean, berriz, Bossiren *Ave María* obra eskainiko dute. Felipe Gorritiren *Motetes al Santísimo*ekin jarraituko dute, eta ohitura den bezala, *Agur Jesusen Ama* obrarekin amaituko da meza.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean II →

40 urtetako frankismoa ez zen izan bat eta bakarra. Bilakaera erabatekoa ezagutu zuen: hasierako gailentasun harroa gainbeheran joan zen oposizioko alderdi politikoak indartzen zihozten ahala. Trantsizioko momentu erabakigarrietara baina, alderdiak zatiturik iritsi ziren.

Frankismotik trantsiziora: iluntasuna argitzen hasi zenekoa

Jon Mintegiaga

Tolosaldea pisuzko politikarien topagunea zen 1936ko gerrak modu bortitzean moztu zuen arte. Abertzaletasunaren ikur, PNV alderdiaren kide esanguratsu askok eskualdea izan zuten bizitoki. Esaterako, Tolosalkate bezala Antonio Maria Labaien idazlea zuen gerra lehortu zenean. Doro-teo Ziaurriz, Ixaka Lopez Mendizabal edo Jesus Insausti *Uzturrek* ere marka handia utzi zuten, bai garai hartan, bai ondoren egokitu zitzairen erbesteko bizimoduaren ere. Ezkerreko ikuspegian PSOE zen nagusi eta Asensiotarren sendiak garaiko alderdiaren arrastok gaur egunera arte ekarri ditu belaunaldiz-belaunaldi; Enrique de Francisco Jimenez, Getafetik Tolosara iritsi eta alderdiari arnasa eman zion sozialistak, ministro kargua izan zuen II. Errepublikan. Alderdi errepublikarrak Ramon Aldasoro eta Castrotarrak bezalako figurak izan zituen bere barruan. Guztiek etorkizun bertsua izan zuten: espetzea, jazarpena edo erbeste. Gehienak etxetik urrun hil ziren.

Behin gerra galduta, frankismoaren oposizioko indar anitzak erbesteko Eusko Jaurlaritzaren barnean antolatu ziren Euskal Herrian. Hasiere partean nazioarteko babes handia ezagutu bazuten ere, denbora aurrerajoa ahala, eragile ezberdinak Espainiar Estatuaren alde lerrokatzen hasi ziren. Gerra Hotzaren garaiak ziren eta mendebaldeko sistema politikoentzat, komunismoaren aurkako guduan, Espainia frankista aliatu fidela zen.

ETAren sorrera

1950eko hamarkadaren erdialde-
ra, gerratea zuzenean ezagutu ez
zuen gazte belaunaldi berri bat za-
harren norabide politikoak auzitan
hartzen hasi zen. Nazioarteko ba-
bes faltaz jabetuta eta erbesteko
politikagintzatik haratago, «barne-
kaldean» antolatu beharra al-
darrikatzen zuten. PNVren, eta
batez ere, bere gaztedia zen EGI-
ren baitan eratu zen talde kritikoa
honetako partaide izan zen Pon-
txo Iriarte Arribetarra. Bilbon
ikasten ari zela gertutik bizi izan
zuen prozesua, eta gerora, ideia
berri haiek Tolosaldera ekarri zit-
tuen.



ETAk Izaskungo ermitatik bandera frankistak kendu ondoren, frankistek *desagrabio* ekitaldia antolatu zuten. HITZA

Iriartek bizitakoaren azalpen-
nak lehen pertsonan kontatuta ja-
so dira *Frankismoa eta Trantsi-
zioa Tolosaldean eta Leitzaldean*
liburuan: «Puskatzea erabaki ge-
nuen, horrela ezin genuela EGRe-
kin (...). EGIren barruan, bilera
horietan, gure programa era-
maten genuen, historia eta poliki-
poliki formazioa taldean. Hitzal-
diak izaten ziren. Oso momentu
delikatuak ziren. Beste herriei bu-
ruz, Aljeria zegoen orduan kande-
leroan, adibidez. Andoainen talde
bat nuen, gehienak Liburu Txikia
ezagutzen zuten, konfiantza ban-
nuen eta zerbaitek egiteko prest al-
zeuden, reklutatzea zen lana. Ju-
ramentua egiten zen, organiza-
zioan sartzen zela eta arauak
mantenduko zirela. Aski gogo-
rarak. Liburua irakurritakoan,
ahul xamarrek zirenek baja ema-
ten zuten. Oso gogorra zen. Atze-
ra botaz gero, taldea zegoen, akti-
bitate mota desberdinak. Bat hitz-
aldiak ematea eta jendea biltze-
a, juramentua egitea gero. Bat-
zuz propaganda linean, besteak
dirua biltzeko linean zeuden. Sei
talde ginen. Albisteak pasatu, lo-
kalak bilatu, buzoiak bilatu... Hi-
rugarrena zen hitzaldiak ematea.
Seigarrenekoak ziren ekintzak
egiten zituztenak».

ETAk bere ibilbideari hasiera-
hasieratik ekin zion eskualdean.
Segituan hasi zen marka uzten:
margoketak, ikurrinak, Izaskun-
go banderen afera, langile mugim-
enduaren bultzatzea... Bere
historian mugarririk izandako V. Bil-
tzarraren lehen zatia Gazteluko

apaiz-etxean burutu zen 1966ko
abenduaren.

Urte eta erdi beranduago, gerra
bukatu ondorengo gatazka mo-
dernoaren odolezko lehen zanu-
en, horrela ezin genuela EGRe-
kin (...). EGIren barruan, bilera
horietan, gure programa era-
maten genuen, historia eta poliki-
poliki formazioa taldean. Hitzal-
diak izaten ziren. Oso momentu
delikatuak ziren. Beste herriei bu-
ruz, Aljeria zegoen orduan kande-
leroan, adibidez. Andoainen talde
bat nuen, gehienak Liburu Txikia
ezagutzen zuten, konfiantza ban-
nuen eta zerbaitek egiteko prest al-
zeuden, reklutatzea zen lana. Ju-
ramentua egiten zen, organiza-
zioan sartzen zela eta arauak
mantenduko zirela. Aski gogo-
rarak. Liburua irakurritakoan,
ahul xamarrek zirenek baja ema-
ten zuten. Oso gogorra zen. Atze-
ra botaz gero, taldea zegoen, akti-
bitate mota desberdinak. Bat hitz-
aldiak ematea eta jendea biltze-
a, juramentua egitea gero. Bat-
zuz propaganda linean, besteak
dirua biltzeko linean zeuden. Sei
talde ginen. Albisteak pasatu, lo-
kalak bilatu, buzoiak bilatu... Hi-
rugarrena zen hitzaldiak ematea.
Seigarrenekoak ziren ekintzak
egiten zituztenak».

Burgosko Prozesua

ETAren jarduerak eta zabalpe-
nak erregimena erreakzionatze-
ra eman zuten eta zigor eredu-
garririk moduan Burgosko Prozesua
antolatu zuten, ustez antolakun-
deko buruzagiak ziren 16 kideren
aurka. Jokin Gorostidi eta Antton
Karrera amezketarra auzipetuen
aulkian zeuden.

Epaiketak baina, kontrako no-
rabidea hartu zuen eta Euskal He-
rriaren greba eta masa mobilizazio
itzelak ezagutu ziren. Nazioarte-
tik, epaiketa salatuz ahots ugari
entzun ziren.


Ordutik aurrera frankismoa
goitik behera hasi zen, iluna zena
argituz, eta oposizioko indar poli-
tikoak biderkatu egin ziren. Er-
besteko alderdi politiko tradizio-
nalak berrindartzen hasi ziren.
Langile mugimenduaren protestak
erradikalizatu egin ziren ber-
rir.

Francoren heriotzak ilusio
handiak piztu zituen Euskal He-
rriaren, eferbeszentzia politiko han-
diarekin batera; garaiko eztabai-
da bizi eta aberatsek ez dute pare-
korik ezagutu geroztik. Erregime-
nak irekitako erreforma bideari
baina, joera politiko bakoitzak be-
re kaxara erantzun zion, garaiko
erabakiak egun ezagutzen dugun

errealitate politikoan bete-betean
eragiteraino.

Garai nahasi haietan dena ez
zen zatiketa izan baina. Amnisti-
aren aldeko mobilizazioek ia indar
guztien babesa ezagutu zuten.
Honela, 1976ko irailaren 26an, li-
buruaren azalari irudia jarri dion
manifestazioa izan zen preso-
en askatasunaren alde, askoren us-
tez, eskualdean inoiz izandako
handiena. Biharamunean, greba
orokorrerako deia egina zegoen
eta Guardia Zibilaren kuartel-
etik berri nahasiak iristen hasi ziren.
Pasarte haiek zehatz-mehatz kon-
tatu dira liburuan:

«Irailaren 27an, astelehena,
Txiki eta Otaegiren hilketen le-
hen urteurrena zela-eta egindako
greba orokorreko deialdiak jar-
raipen zabalak izan zuten Euskal
Herrian. Nazioartetik etorritako
zenbait hedabidek adierazi zuten
ordu arteko grebarik arrakasta-
tsuena zela. Gipuzkoan, jarraipe-
na %90aren bueltan ibili zen; es-
kualdean, erabatekoa izan zen.
Goizean goizetik, baina, zurr-
murrua kalean zabaldu zen: Luis
Alonso, Guardia Zibileko kapitai-
na, atxilotua egon zitekeen».



Burgosko Prozesua mugarririk izan zen frankismoaren gainbeheran. HITZA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Programazioa

28 KANALA

- 12:30. On ein.
 - 13:00. Kotxe klasikoak.
 - 13:30. Tolosaldean Gaur.
 - 14:00. Walker.
 - 14:30. Ikusmira.
 - 15:00. Berbaz.
 - 15:30. Tolosaldean Gaur.
 - 16:00. Ikusten.
 - 16:30. Berbetan.
 - 17:00. Kantari Arrasate.
 - 17:30. Tolosaldean Gaur.
 - 18:00. Tertulia.
 - 19:00. Bizitegia.
 - 19:30. Tolosaldean Gaur.
 - 20:00. Erosi eta ikasi.
- Programazioa 8 orduro errepikatuko da.*

TXOLARRE IRRATIA

- 11:00-12:00. Tolosaldeko Ahotza- Albistegia. Besteak beste, Txuletaren Fxestaren inguruak.
- 12:00-13:00. Tolosaldeko Ahotza- Magazina. Besteak beste, Zortziko Aldrebesa bertolaritari eskainitako asteroko tartea.
- 13:00-13:30. Lehiaketa eta disko eskainiak.
- 13:30-14:00. Infozazpi albistegia.
- 14:00-15:00. Tolosaldeko Ahotza Albistegia.
- 16:00-17:00. Gonekin Ero Bero (Antxeta Irratia).
- 17:00-18:00. Kabitik Plazara. Gpuntuo azken final aurrekoaren kronika. Hernaniko Galarretan entzun ahal izan ziren bertorik onenak.
- 18:00-19:00. Tolosaldeko Ahotza Magazina.
- 19:00-20:00. Tolosaldeko Ahotza Albistegia.
- 20:00-20:30. Infozazpi albistegia.
- 21:00-22:00. Adi (Irulegi Irratia).

Merezitako omenaldia Elolari

Jose Inazio Elola puntista zendu berria gogoan izan dute jendez betetako Beotibar pilotalekuan

Imanol Garcia Tolosa

Zesta puntaren munduak bere izarretako bat omendu zuen, atzo, Tolosako Beotibar frontoian: orain gutxi hil den Jose Inazio Elola. Pilotalekua jendez beteta egon zen, puntista tolosarrari merezitako omenaldia eginez.

Elola izan zen Beotibar Zesta Punta Eskolaren sortzaileetako bat, eta eskolako aritu ziren omenaldia prestatzen. Bertako pilotari gazteak kineletan aritu ziren jokatzeko, eta ondoren, goi mailako bi pilota partida ikusi ahal izan ziren, Jai Alive enpresako pilotariekin.

Pilotari profesionalen partiden tartean egin zen omenaldia. Elolaren senideek hainbaten oroigarriak jaso zituzten: Tolosako Udala, Amasa-Villabonako Udala, Gipuzkoako Pilota Federazioa, Euskal Pilota Federazioa, Jai Ali-



Jose Inazio Elolaren senideak, omenaldian parte hartu zuten erakundeetako ordezkariak eta puntista ohiak. I.T.

ve enpresa, eta noski, Beotibar Zesta Punta Eskola. Hainbat puntista ohi ere bertan izan ziren, beraien saskiekin.

Omenaldiaren aurkezpenean esan bezala, ezusteko bat zuten gordeta eskolakoek. Izan ere, Beotibar frontoian sarreraren plaka bat jarri zuten, estalita, eta omenaldia ospatzen ari zela ikusgai jarri zuten. Plakarekin, Jose Inazio Elola eta Beotibar lotuta geratu dira betirako.



Elolaren omez Beotibar frontoian jarri duten plaka. I.TERRADILLOS

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarreren, 2. 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

INKERNU
jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako mozerroak

Gernikako Arbola 1 behea • **TOLOSA** • 943 24 43 64 • elvinkernu@gmail.com

GONBIDATUTA ZAUDE



Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburuaren aurkezpena.

Abenduaren 14an, asteazkena, 19:00etan Tolosako zerkausian

Aurkezpenaren amaieran, nahi duenak liburua eskuratu ahal izango du.

Eserlekuak eta berogailua izango dira. Ondoren, lunch-a eskainiko da.

